



“ZUBELTZU”

IV. Bertso Paper Sariketa



DEBA-ITZIAR

2012

AURKIBIDEA

SARRERA	5
• LEHEN HEZKUNTZA:	
Agirretxe (Unai Zarraua)	9
Aloyu (Lorena Ladera)	9
Alper (Samantha Cardoso)	10
Amai (Amaia Isasti)	10
Andutz (Xabier Larrañaga)	11
Aranburu (Telmo Altzibar)	11
Arkatza (Arkaitz Torres)	12
Arri (Eneko Arriola)	12
Astillero (Julen Aiestui)	13
Atzelaixa (Elene Arratibel)	13
Berritsu (Miren Chivite)	14
Bihurri (Bitor Garitaonandia)	15
Cheesecake (Haritz Alberdi)	15
Gominola (Elene Gómez)	16
Gopi (Gorka Prieto)	17
Gore (Goretti Unanue) 3. SARIA	17
Haizea (Intza Sudupe)	18
Hipermañ (Beñat Sanz)	18
Ilargi (Malen Arakistain)	19
Ira (Iratí Martín)	19
Itziarko erregea (Alejandro Delgado)	20
Izurdea (June Sudupe) 1. SARIA	20
Jacob (Ander Rodriguez)	21
Jani (Janire Lopetegi)	21
Joxe (Julen Bollain)	22
Katxiporreta (Naroa Laka)	22
Kukuxumuxu (Joseba Sánchez)	23
Lapari (Maider Corrius)	23
Lapitza (Elaia Oiartzabal)	24
Lauburu (Peru Santxo)	24
Laura (Naia Zabala)	25
Loretxo (Olatz Matias)	25
Mape (María Pérez)	26

Marrazkilaria (Brenda Impa)	26
Misterousa (Jon Osa)	26
Munantxo (Ane Zulaika)	27
Neili (Teresa Aceña)	27
Nesa (Nerea Sanz)	28
Otzango (Aloña Salegi) 2. SARIA	28
Pinpiriña (Arantxa Odriozola)	29
Potito (Pablo Ron)	29
Sagua (Eider Pérez)	30
Saltakaria (Martin Hernández)	30
Sunny (Aitor Ibarluzea)	31
Super Tuent (Irene Duran)	31
Timpu (Andoni Ibarguren)	32
Torpedo (Urko Azkoitia)	32
Turin (Ane Larrañaga)	33
Txanogorritxo (Elene Urkiri)	33
Txano-Urdintxo (Regina Esmoris)	34
Txorimalo (Aitor Arakistain)	34
Ueu-Andutz puntara (Uxue Egaña)	35
Ura (Xabier Uranga)	35
Usarra (Ibai Salegi)	36
Xafla (Ane Ladera)	36
Zape (Jone Gómez)	37
Zuriñe (Wendy Terán)	37

• D.B.H.:

Abenduaren 21a (Gaizka Aldalur).....	40
Airea (Haizea Egaña)	41
Andutz (Janire Salegi)	42
Ekipo Kalabera (Nikolas Egaña eta Joseba Beitia)	43
Errasti (Itxaso Itziar).....	44
Festa (Leire Movellan)	45
Iker Muniain (Idoia Agirregabiria).....	46
Irureta (Dorleta Aizpurua)	47
Karlos Argiñano (Julen Aldalur)	48
Lizarran (Mikel Arrizabalaga)	49
Lolita (Itzale Laka) 3. SARIA	50

Maiak (Xabat Alberdi)	51
Pele (Ekaitz Zubimendi) <u>2. SARIA</u>	52
Txanpi (Julia Ron) <u>1. SARIA</u>	53
Txoronpío (Malen Oiartzabal)	54
Untxia (Unai Matias)	55

• **NAGUSIAK:**

Ardi beltza (Manex Astigarraga)	58
Axola (Iñaki Astigarraga).....	60
Killarratxueta (Igor Larrañaga) <u>1. SARIA</u>	62
Lastur (Karlos Larrañaga) <u>2. SARIA</u>	64
Trikitixa (Josune Arakistain) <u>3. SARIA</u>	67



Irakurle:

Eskuartean duzun liburuxka honetan, Zubeltzu bertso-paper sarketan parte hartu dutenen lanak bildu dira. IV. edizioa dugu aurtengoa eta, orain arte bezala, hiru maila bereizi ditugu: gaztetxoak, gazteak eta nagusiak.

Honako lan eta gaiak jarrita aritu behar izan dute parte har-tzaileek:

• GAZTETXOAK (2001.ean jaiotakoak eta gazteagoak):

- Lana: Bertso bat edo 2 kopla egin, gutxienez.
- Gaia: “Asteburuko plana egiten ari zarete lagunartean”

• GAZTEAK (1997-2000n jaiotakoak):

- Lana: 3 bertso edo 6 kopla egin, gutxienez.
- Gaia: “Mundua abenduan bukatuko omen da”

• NAGUSIAK (1996koak eta zaharragoak):

- Lana: Gai librean, 4 bertso edo 8 kopla, gutxienez


Zenbat buru, hainbat aburu. Orriotan irakurri ahal izango dituzu, gai beraren inguruan, egileen irudimen eta ahalaren araberan, bertso erabat diferenteak, aniztasunaren erakusgarri.

Gustuko izan ditzazula.

**Debako Udaleko Euskara Batzordea
eta ZUHATZA Euskara Elkartea**







AGIRRETXE

Lagun artean gelditu gara
lau terditan plazoletan
tren geltokira joan ta gero
Urbila joateko asmotan
geroxeago gelditu gara
merienda jatekotan
barre gehiegi egin ditugu
bidaia eder honetan

**Doinua: Aita semeak tabernan daude.
Eqilea: Unai Zarraua**

ALOYU

Plaza berrian elkartu gera
lagunok hitz egitera,
asteburuan zer eingo dugun
denok erabakitzera.
Larunbatean trena hartu ta
Zumaiara piszinara,
igandean berriz, beti bezala
Kulturrera zinemara.

Doinua: Pello Joxepe tabernan dela Eqilea: Lorena Ladera














ALPER
Mezu bat bidali dut
Debako Beleni
hip hop dantza egiteko
erritmoak segi.
Tralaralai

Txapela pasa dugu
jendeen artean
hamabost euro emango
digute agian.
Tralaralai.....

**Doinua: Ama begira ezazu
Egilea: Samantha Cardoso**

AMAI
Hementxe gaude hementxe
oraintxe txarlatan
gero hasiko gara
betiko bertsotan
bihar bazkari eta
etzi afaritan
lagunekin geratu
gara tabernetan


Doinua: Maritxu nora zoaz Egilea: Amaia Isasti



ANDUTZ
Pablokin gerau naiz gaur
plaza zaharrean
pelotan jolasteko
asmo earrean.











Pelota joan zaigu
goiko gradetara
hartzen saiatu gera
eskalatzen gora.



*Doinua: Ama begira ezazu
Egilea: Xabier Larrañaga*



ARANBURU
Asteburuan ez dakit zer in
eta aspertuta gaude
ni aritu naiz pentsatzen baina
ez zait oroitu batere
surfa itea Zarautza joan
ta surfista asko daude
baina hondartza orain dagola
olatu baterik gabe.



*Doinua: O baserritxo
Egilea: Telmo Altzibar*





ARKATZA
Zenbat egun faltako
dira jaietarako
itxaroten ari naiz
egun hortarako.
Jende guztiak dio
lasai egoteko
baina ni ezin egon
urduri nagolako.


*Doinua: Maritxu nora zoaz
Egilea: Arkaitz Torres*



ARRI
Asteburu honetan
goaz pelotara
aldats frontoira noa
partida egitera

Partida honetan beti
tantoa gurea
Urko, Josu eta ni
oso onak baigera

*Doinua: Maritxu nora zoaz
Egilea: Eneko Arriola*



ASTILLERO
Asteburuko plana
oso ona bera:
MC donald's-era goaz
ta gero zinera.
Ondo pasako dugu
guztiok batera
gauzak ikusi dugu
zinean batera

*Doinua: Astoa ikusi nuen
Egilea: Julen Aiastui*

ATZELAIXA
Asteburu hontan ingo degu guk,
parre asko ta algara.
Lagun artean goaz Larraitza,
Txindoki punta ikutzena.
Igo ondoren jeitsiko gera,
Abaltzizketa ikustera.
Merienda ederra egin da gero,
bapo geldituko gera

*Doinua: O baserritxo
Egilea: Elene Arratibel*

BERRITSU
Lagunekin geratuz
mendira banoa
surfean ibiltzea
banuen asmoa.

Aldapa gora goaz
nekatuta nago
nere laguna baina
gosetuta dago.

Baserriak ikusten
bagoaz ibiltzen
paisaia asko daude
ta ez dira ikusten.

Gora iritsi gera
gosetuta nago
jaten hasiko gera
txuleta badago.

Euria hasiko dela
esan dute orain
zaparrada hasi da
ni hemen nago zain.

*Doinua: Ama begira ezazu
Egilea: Miren Chivite*

BIHURRI

Hondartzara ez goaz
negua delako
eta geratu gera
Arnora joateko.

Xabik proposatu dit
igeri egitea
baina pentsatu degu
dantzara joatea.

Doinua: Ama begira ezazu Egilea: Bitor Garitaonandia

CHEESECAKE

Atzo goizean gelditu ginen,
plantxo bat egiteko.
Ta orduan nik esan nuen,
akuariumera joateko.
Nahiz ibilbide luzea eduki,
bizikletan joan ginen.
Iritsi ginen akuariora,
ta pozez jarri ziren.

**Doinua: Badira hiru aste
Egilea: Haritz Alberdi**

GOMINOLA
Asteburu honetan
bzikletan nua
Riojan egongo naiz
jolas ta kantua.

Nire lehengusinakin
jolastuko naiz han
txakurra atera ta
jolas eta dantzan.

*Doinua: Ama begira ezazu
Egilea: Elene Gómez*



GOPI

Aste honetan nik nahiko nuke
parkera joan jolastera
baina lagunek esan didate
ni ez noa nekatzera.
Zergaitik ez gara etxera joaten
Nintendoan jolastera
azkenerako konpondu gera
joango gera nere etxera.

*Doinua: O baserritxo
Egilea: Gorka Prieto*

GORE

Plan eder bat egiten
gabiltza klasian
hondartzara goaz gu
poliki pasian
kantari joan da gero
gu bide luzian
uretan ibiliko
gara jolasian.

3.
SARIA

Doinua: Nere Sentimentua Egilea: Goretti Unanue

HAIZEA
Lagunekin gabiltza
hona eta hara
dantzarako asmotan
geldituko gara.
Gurekin datorrenak
ahaztu patxada
utzidazu aitatxo
hain ona bazara.

*Doinua: Maritxu nora zoaz
Egilea: Intza Sudupe*

HIPERMAN
Larunbatean pentsatu degu,
plazoletan jolastea.
Ta aspertu ondoren joango gera,
futbol zelaia ikustera.
Igandean bai ez degu pentsau,
nola ondo pasatzea.
Eta azkenik aukerau degu,
Aizkorrira igotzea.

*Doinua: O baserritxo
Egilea: Beñat Sanz*

ILARGI

Lagun artean gabiltz,
biharko plana eiten
batzuk esaten dute,
Bilbora goazen.
Beste batzuk berriro,
futbolearen jokatzen
ondo pasako degu,
tope dibertitzen.

*Doinua: Astoa ikusi nuen
Eqilea: Malen Arakistain*

IBA

Asteburu hontan ez
dakigu zer egin
igual Alamedan hor
bai ederki! Ezin
etxean gelditu hor
benetan bakarrik
aspertu egingo naiz
beti irakurriaz

*Doinua: Astoa ikusi nuen
Egilea: Irati Martín*

ITZIARKO ERREGEA

Gaur ostirala dela,
konturatu gera.
Asteburuko plana,
joan gera egitera.
Partidoan pentsatzen,
Errota Zaharrera.
Baina astelehenean,
berriz joan eskolara.

*Doinua: Maritxu nora zoaz
Egilea: Alejandro Delgado*

IZURDEA

la guztien ustez
gaudenez gu ero
urtarrila erdian
duguna espero
plisti-plasta hondartzan
hotza edo bero
sendatuko da norbait
gaixorik balego.

1.
SARIA

*Doinua:
Egilea: June Sudupe*

JACOB

Aste honetan nik nahi dut egin
bilarrean jolastea.
Horretarako pentsatu dut nik
lagunekin geratzea.{bis}
Jolastu ginen ta irabazi
nuen nik partidoa.
Gero joan ginen plaza berrira
futbolean jokatzena.{bis}

*Doinua: O baserritxo
Egilea: Ander Rodríguez*

JANI

Planak egiten ari
gara lagunekin
Maite, Nerea, Elene
eta Iratikin
Ondo pasatzen ari
gara izekokin
berriz ere osaba
berriro gurekin.

**Doinua: Triste bizi naiz eta
Egilea: Janire Lopetegi**

JOXE
Asteburuko plana
egiten ai gea
Bilbora goaz denok
sala-juegosera
ondo pasatu ondoren
berriro etxera
ta bihar eskolara
denok ikastera.

Oso ondo atera zen
lagun guztiokin
ondo pasatu genun
gure planarekin
oso-ondo atera zen
gure-edadekoekin
pozik amaitu genun
gure lagunekin.

*Doinua: Astoa ikusi nuen
Egilea: Julen Bollain*

KATXIPORRETA
Asteburua laster
etorriko da ta,
planak egiten gaude
burua beteta.
Al da jun pistinara
edo elurreta,
ez dakigu nora jun
ai katxiporreta!

*Doinua: Astoa ikusi nuen
Egilea: Naroa Laka*

KUKUXUMUXU
Lagun artean goaz
denok Donostiara
Realaren entrena
denok ikustera
firmak ere eskatzea
beien hotelera
Anoetatik atera
ta buelta etxera.

Doinua: Triste bizi naiz eta
Egilea: Joseba Sánchez

LAPARI
Gu denok hemen gaude
biharko plana iten
batzuk esaten dute
pelotan jokatzen
beste batzuk ere bai
hondartzara joaten
ondo egingo degu
guztia ospatzan.

Doinua: Maritxu nora zoaz
Egilea: Maider Corrius

LAPITZA

Parkean gaude denok
kuadrillan pentsatzen
biharko plana egiten
gaudela oraintxen,
batzuk esaten dute
Warnerra goazen
ondo pasauko degu
Batmanen montatzen.

Trena harturik goaz
orain Madrilera
maleta banarekin
bost pertsona gera,
Warnerra aurkitzeko
aurrera atzera
iritsi geranean
filan itxoitera.

*Doinua: Minberatu zaizkigu
Egilea: Elaia Oiartzabal*

LAUBURU

Asteburu honetan
plana da bertsoa
lehengo partidoa
gero etxera noa.

Pixkat itxoin ondoren
kalera nijoa
etxera itzulita
bazkari goxoa.

*Doinua: Ama begira ezazu
Egilea: Peru Santxo*

LAURA

Iritsi da ostirala
eta pozik gaude
asteburuan zer egin
aukera asko daude
Deban eta Zumaian
dira mila bide
bizikleta hartuta
goazen adiskide.

Doinua: Ama begira ezazu Egilea: Naia Zabala

LORETXO

Naroak esaten du,
hondartza jutia,
baina esan omen du
kaxkarra dela eguraldia
Arantxa kezkatzen da,
kalera irtetzia,
gehiegizkoa dela,
uste dut plan hori itia.

*Doinua: Ikusi nuenian
Egilea: Olatz Matias*



MAPE

Hementxe bertan gaude
biharko planetan,
ez dakigu zer egin
asteburu hontan.
Denak oihuka daude
hau da zoramena,
etxearen geratzea
izango da onena.

Doinua: Maritxu nora zoaz

Egilea: María Pérez

MARRAZKILARIA
Frantziara ba noa
nire lagunekin
Frantzia ondo dago
Eiffel torreakin
museo asko daude
oroigarriekin
beno bukatuko dut
muxu askorekin.

Doinua: triste bizi naiz eta
Egilea: Brenda Impa

MISTERIOSA

Aste honetan gelditu gera,
Ibizara joateko.
Hondartza onak leku politak,
gogoa dut ikusteko.
Itsasontzian barrurantz joan,
eta snorkling egiteko.
Ahal izanez joango ginen,
oporetan betirako.

Doinua: Pello Joxepe


Egilea: Jon Osa

MUNANTXO
Asteburuko plana
egiten ai gera
Donostira joango gea
erropa erostera
goizian geldiu ta
trenez Urbilera
McDonalsen bazkaldu
gero Forumera.

Forumetikan irten
ta goaz behera
Bershkara sartu gera
galtzak erostera
berriro eskaileton
gora igo gera
bostetan zinemara
txartela hartzera.

Teden pelikulia
ikusi ta behera
korrika ta presaka
guaz parking-era
gero autopistatik
guaz baserrira
afaldu ta seituan
guaz lo itera.

*Doinua: Haiziak bidali du handikan honea
Egilea: Ane Zulaika*



NEILI
Orain dela hiru aste
plana idatzita
Londresera joateko
prestatzen maleta
Europako hiri hau
modaz estalita
Bilbotik hegazkina
goizean irten da.


Ostiral arratsaldean
kriston eguzkia
Londresa joanda
egunero euria
Big-bena ikusten ta
autobus gorria
telebista egoki
nahiago bidaia.

*Doinua: Xarmangarria zira
Egilea: Teresa Aceña*

NESA
Hementxe gabiltza gu
plan bat antolatzen
nire etxean gaude
bokatak prestatzen

Gure erabakia da
mendira jutea
eta hango zelaian
bokata jatea.

*Doinua: Ama begira zazu
Egilea: Nerea Sanz*



OTZANGO
Asteburua ondo juteko
planak eginda nahiago,
lagun denekin plaza erdian
zer egin pentsatzen nago.
Andutzko punta jungs nintzake
batenbat libre badago.
Gurutzeagatik esaten dute
dola gero ta gorago.

2.
SARIA

*Doinua: O baserritxo
Egilea: Aloña Salegi*

PINPIRIÑA
Hemen dagola gure kuadrilla
planak ondo komentatzen.
Eta esan digute aidala_
_Amaikak Bat jokatzen.
Hogei minutu pasa ta gero
bi-zero ari da galtzen.
Partidua ya bukau ta gero
danak gaude amorratzen.

*Doinua: Zeru altuan zegoen jauna
Egilea: Arantxa Odriozola*

POTITO
Asteburu honetan
aspertuta seko,
lagunei deitu diet
igual gelditzeko.

Bostetan gelditu naiz
frontoira joateko,
ta badut bertso on bat
lehiaketarako.

*Doinua: Ama begira zazu
Egilea: Pablo Ron*

SAGUA
Planak egiten gaude
guztiok pentsatzen
batek esan du oraintxe
mendira goazen.
Hasi gara poliki
bidean ibiltzen
hantxe geratu gara
guztiok bazkaltzen.

*Doinua: Astoa ikusi nuen
Egilea: Eider Pérez*

SALTAKARIA
Joango al gera koadrilarekin
Gorbeiako tontorrera
txokolatia ta txorizua
gozo - gozoa jatera
menditik behera jeistean denok
kantatzen hasiko gera
gustura asko itzuliko haiz
Debako herri aldera.

Doinua: Ari naizela ari naizela
Egilea: Martín Hernández

SUNNY
Gasteizera bidean
atasko batean
ezin mugitu eta
zer egin ezean
bero kiskalgarria
egiten du bertan
eta orain hementxe
jiratu ezean.

Doinua: Triste bizi naiz eta
Egilea: Aitor Ibarluzea

SUPER TUENT
Orain dela bost egun
geudezen prestatzen
 Urbilera bisita
 egingo genuen
 zinera joan eta
 erropa probatzen
kriston ondo pasau deu
erosketak iten.

*Doinua: Maritxu nora zoaz
Egilea: Irene Duran*

TIMPU
Denok etxeko lan bat badugu
 plan polit bat pentsatzea
Andutz mendira joan da bertan
 piknik eder bat egitea
beste plan eder bat ere bada
 etxearen Win jolastea
guretzat garrantzitsuena da
 denok ondo pasatzea.

*Doinua: Badira hiru aste
Egilea: Andoni Ibarguren*

TORPEDO
Astebururako
gaude plana iten
futbola edo pelota
eta surfera irten.

Asteburuko plana
ezin degu adostu
mendia edo pelota
ezin gera poztu.

*Doinua: Ama begira ezazu
Egilea: Urko Azkoitia*

TURIN
Asteburu honetan
txalupan Ibarra
lagunekin farrezka
ondo pasatzera
aitzulora joan eta
gauzak aztertzera
zikin zikin eginda
gero dutxatzera.

*Doinua: Triste bizi naiz eta
Egilea: Ane Larrañaga*

TXANOGORRITXO
Asteburu honetan
denok hondartzara
hondarrakin jolasten
gero uretara.
Pistinara joan eta
denok bainatzera
lagunekin ibiltzen
ondo pasatzera.

*Doinua: Triste bizi naiz eta
Egilea: Elene Urkiri*

TXANO-URDINTXO
Asteburuan badugu plana
baina ez da Urbilera.
Beti berdina egiten dugu
Alamedan egotera.
Neguan hotza egiten du ta
joaten gara izoztera.
Aste luzea dugu oraindik
gero goaz pentsatzera.

*Doinua: Badirela hiru aste
Egilea: Regina Esmoris*

TXORIMALO

Larunbatean atera ginен
gure planak egitera
borobilean eseri eta
nora joan pentsatzen
Andutz mendira joatekotan
denok ondo pasatzera
baina Andonik erantzun zigun
zerta hankak nekatzen.

*Doinua: Badira hiru aste
Egilea: Aitor Arakistain*

UEU - ANDUTZ PUNTARA

Hementxe ari gara
plana antolatzen
Andutzeko puntara
jutea pentsatzen
nekatuko gara bai
goraino igotzen
baina lortuko degu
elkarri laguntzen.

*Doinua: Astoa ikusi nuen
Egilea: Uxue Egaña*

URA

Asteburuko planak
egiten gaude gu
nora joango ote garan
pentsatu behar dugu
bisitatuko nuke
Amerikan Peru
bizikletan joateko
kaskua behar degu.

*Doinua: Maritxu nora zoaz (bigarrena)
Egilea: Xabier Uranga*

USARRA
Asteburuko plana
egiten ai gera
mendira joango gara
Aizkorri aldera
euria ari dula
goitikan behera
etxian gerauko naiz
amakin batera.

*Doinua: Getariko txakolinarena
Egilea: Ibai Salegi*

XAFLA
Gaurko eguna osteguna da
lagunak goaz kalera.
Asteburuko plana pentsatzen
Alamedan jardun gera.
Derrepentean organizau deu
bidaia torre Eiffelera.
Hara igo ondoren azkar jaisteko
220 eskailera.

Metroa hartu ta joango gera
Notredama ikustera.
Erakusketaz gozatu ondoren
gazta apur bat jatera.
Arratsaldean laguntxoekin
joango gera hotelera.
Gauean hegazkina hartu ta
azkar batean Debara.

*Doinua: Pello Joxepe
Egilea: Ane Ladera*

ZAPE

Hementxe gaude sozidadean
kuadrila sorta guztia
eta biharko plana pentsatzen
denbora joan da etorria

Eta botazioa egingo degu
ez gealako ados jarri
batzuk esaten dute mendira
ta besteak herriz herri

Eta azkenean ez gera joango
hortikan inora errez
eta orduan jabetu gera
eguzkia ez dagola ez.


*Doinua: Aita semea
Egilea: Jone Gómez*

ZURIÑE

Gabona irtsi baino lehen
ez dut bidaiko nahiago
Londres da nire lehen opzioa
baina Paris ere dago
kuadrillakin joan nahi nuke
baina ez gaude gu ados
azkenean New Yorkera
joateko gaude asmoz.

*Doinua: Badira hiru aste
Eqilea: Wendy Terán*





ABENDUREN 21a

1

Aurten mundua bukatuko da
maiek esaten dutenez
persoña asko ibiltzen dira
hilko garela esanez
batzuek sinesten dute hori
baina beste batzuek ez
aurten mundua amaitzen dela
gezurra da nire ustez

2

Hondamendirik ez da pasako
hogeita bat egunean
egun horretan ez da_inor hilko
lurrikara gertatzean
meteoritorik ez da_eroriko
urte honetan Lurrean
lasaituko al gara guztiok
egon gaitezke bakean

3

Lurrean ez da ezer pasako
irten gaitezen kalera
bizitza ez zaigu aldatuko
goazen oraintxe kalera
aspertu naiz ba kontu honekin
joan gaitezen amaitzera
laster gabonak helduko dira
ta goazen ospatzera

*Doinua: Pello Joxepe
Egilea: Gaizka Aldalur*



AIREA

Aitak esan dit entzun duela
mundua amaitzean dela
erantzun diot kontu horrekin
lasai asko nagoela
baina gauean pentsatzen nago
benetan bada horrela
motxila hartuta ni banijoa
bihar bertan Venezuela

Denbora gutxi geratzen da ta
agur ama eta aita
bidaiatzera noa kanpora
disfrutatzeko bizitza
nire ametsak beteko ditut
Venezuela ikusita
Amerikako familiarrei
egingo diet bisita

Mendi ederra, jende jatorra
aurkitu ditut hemendik
hogeita bata iritsi da ta
ez da ezer pasa oraindik
nire bidaia amaitu da ta
berriz nabil Euskaditik
berriro ere jarraituko dut
nire bizitza gogotik.

*Doinua: Pello Joxepe
Egilea: Haizea Egaña*

ANDUTZ

I

Egunak joan eta etorri
bizitzak in du aurrera,
ta zori txarrez gure munduak
pixkanaka okerrera.
Nahiz eta gauza denak bezela
izan zuen hasiera,
denari heltzen zaion bezela
hemen omen da amaiera.

II

Abenduaren hogei ta batan
bukatzen omen da dena,
horretan ez pentsatzea dugu
guztontzat hoberena.
Nahiz eta hori izan munduko
gauzarikin okerrena,
lehenengo bizitzan ez bada izan
disfrutatu bigarrena.

III

Hori guztia gezurra dela
iruditzen zait zeharo,
baiezkoakin pentsatze hori
nere ustez hobeago.
Mundua ez da amaituko inoiz
pentsatzen jarrita nago
ta hala ere hori bakoitzan
sinismenan esku dago.

*Doinua: Zeru altuan zegoen jauna
Egilea: Janire Salegi*

EKIPO KALABERA

1

Mundua noiz bukatzen
guk jakin nahi dugu
bi hilabete, aste bat
hori ez dakigu

2

Maiak esaten dute
abendu honetan
hilabete hontako
hogeita-batean

3

NASAk beti esan du
horrelako gauzak
ta beti izan dira
gezurrak galantak

4

Santo Tomas eguna
beldurtuko gera
ondoren txorizoa
asetzeko plazan

5

Egu berri eguna
elurra egingo du
meteoritok ere
jauzi al zaizkigu

6

Bakoitz a egin dezala
berak nahi duena
bizi garen bitartez
aprobetxatzera

*Doinua: Ama begira ezazu
Egileak: Nikolas Egaña eta Joseba Beitia*

ERRASTI

Jende gehienak esan omen du
“Hau gure amaiera da!”
Baina gu guzti hau gainditzeko
oso kementsuak gara.
Guzti honek porrot egingo du
den-dena gezurra bada.
Zu ere bai konbentzitu zaitez
oso indartsu baitzara.

Abenduaren 21a
dela esaten baitute.
Oso fuertea zara zu eta
salbatuko zaituzte.
Niri gustatuko litzaidake
salbatuko banindute.
Gu bakarrik geratzen bagara
lagundu egingo gaituzte.

Nik duda zail txikitxo bat daukat
nola izango ote da?
Meteorito handi bat eroriko
eta amaituko ez bada?
Hainbat persona bakar-bakarrik
munduan geldituko gara.
Lasai guztiak hiltzen bagara
zu ere bai hilko zara.

*Doinua: Badira hiru aste
Egilea: Itxaso Itziar*

FESTA

Klasean geunden denok abesten
Gabon lehenengo egunean,
ta harrituta geldi(t)u ginен
irratia piztu zenean
denok txilizu egiten zeuden
MUNDUA BUKA(T)UKO DENEAN...!"
Nik hori ez nuen sinesten
Mayek asma(t)u zutenean.

Zoroetxea ematen zuen
gure ikastetxe ederrak
denak zoratuta zeuden eta
ni joan nintzen kalera
baina alarma jo zuen (e)ta
uste genuen zela zera:
sukaldean sua zegoela.
Ta gainera ume batzuk gera

Kanpora atera ginen denok
suak erre beldurtuta
pertsona batzuk suteak beldur,
ta beste batzuk eztandak
ezin sinestu gure bizitzak
zeudela ia txikituta
ta bat-batean alarma geldi(t)u,
ta baita denen urduriak.

Doinua: Pello Joxepe Egilea: Leire Movellan

IKER MUNIAIN

1

Garai batean aitona-amonek
ez zuten ezer erosten.
Etxean zuten barazki eta
abere jaten zituzten.
Hamaika ume edo hamabi
hasi ta hezi hain zuzen.
Gure garaian ezinezkoa
holako ohiturak izaten.

2

Goizean goiz jaiki ondoren
lanera joaten gera.
Beti erosten ibiltzen gera
alde batetik bestera.
Zoriontsu izan nahi dugu eta
bota penak bazterrera.
Krisia eta langabezia
datoz gu inguratzen.

3

Gure barneko bakardadea
nolabait itzali nahian
saiatzan gera dotore jazten
itxura onez kalian
Alferrik dira holako gauzak
hola gauden bitartian.
Elkartu eta ongi pasatu
gauza gutxieng aurrian.

4

Urte gogorra datorrela ta
hasi gaitezen prestatzen
langabezi ta kaleratzeak
ari zaizkigu ugaltzen.
Borondatea ta elkartasuna
saiatu behar da sortzen.
Etorkizun ta mundu berri bat
elkarren artean lortzen.



Doinua: Pello Joxepe

Egilea: Idoia Agirregabiria



IRURETA

Amerikako tribu batean
egutegia egiten
bat-batean konturatu ziren
urtea ez zela hasten
denak arduratu ziren
jendeari abisatzen
gure mundua bukatuko da
abenduko egun baten.



Zientzialari eta astronautak
gai hori ondo aztertzen
egia den jakin nahian daude
datuak azkar bilatzen
denbora gutxi faltako al da
dena hasteko kiskaltzen
ez dakigu mundu bitxi hontan
norbaitek salbatuko ote den.

Denak gehiegi arritu ginen
eta batzuk oihukatzen
egun baten NASAk deitu eta
dena esplikatu zuten
nik zabaldu nuen notizia
jendea neri txalotzen
albiste ona zabaldu nuen
NASAk eskerrak ematen.

DOINUA: Aita semeak tabernan daude
Egilea: Dorleta Aizpurua



KARLOS ARGIÑANO

1

Abenduaren 21a
munduaren bukaera
Amerikako maiek nahi dute
 iristea amaiera
gu oso urduri gaude baina
 hala ere hilko gera
abenduaren 20.ean
 enaiz joango oera.


2

Olentzero ta 3 erregeak
 ez ditugu ikusiko
horregatik ez dituzte aurten
 opariak ekarriko
opari gabe gerauko gera
 gu behin eta betiko
pena handia hartuko dut nik
 enaiz Play-an ibiliko.

3

Oso gaztea naiz ni eta
 ez dut merezi hiltzea
baina jendeak nahi du aurten
 azkar mundua lehertzea
besteok ordea nahiago dugu
 mundua ez desagertzea
eta gainera nahi dugu denok
 luzaroan bizitza.

*Doinua: Pello Joxepe
Egilea: Julen Aldalur*



LIZARRAN


Maiek esan zutenez
mundua bukatu,
eta egin genuen
pertsonok ukatu.
Nola bukatuko den
jendeak esan du,
teoriak ditugu
ta ezetz asmatu.




Horrelakoak gara
mundua suntsitu
eta ez du importa
jarraituko dugu.

Munduko gauza denak
dira desagertu,
hainbeste kutsatuta
mundua da lehertu.

Ez dakit egia den
esaten dutena
baina nik nahi nuke
horrela ez dela.
Neretzat onek denak
ematen du pena
eta bukatzen bada
galduko da dena.

*Doinua: Maritxu nora zoaz
Egilea: Mikel Arrizabalaga*





3.
SARIA


LOLITA

Lagun artean elkartu gara
goazen denok plazara
plazan azoka bat dago eta
poz-pozik goaz bertara
atso batekin elkartu gara
eraman gaitu dendara
atso zaharrak esan digunez
laster hil egingo gara

Plazako jende guztia dabil
kontu berakin marmarka
atso zaharraren hitzak daude
nire buruan bueltaka
beldurrarengatik gu guztiok
kopeta dugu tantaka
inorrek ez du sinisten baina
gorputza dugu dardarka

Abenduaren 21a
zer nolako oroipena
itsasoa bortizki hasi zen
hura zen gure azkena
herri guztia negar malkotan
a zelako bzipena
amets batekin esnatu naiz ta
egina dut hasperena

*Doinua: Pello Joxepe
Egilea: Itzale Laka*





MAIAK
Maiek esan zutena
egia ote da,
mundu hontan bizitza
bukatuko dela.

Bederatzi eguntxo
geratzen zaizkigu,
oporrak ditugu ta
izorrauko gaitu.


Guk jakingo bagenu
hori dela_egia,
klaseak utzi eta
egingo deu pira.

Irakasle maitea
gu gara beldurrez,
munduaren azkena
dugu aurre-aurrez.

Klaseak utzi eta
goazen baziartzera,
mozkorra harrapatu
ta_ondoren etxera.

Gezurra baldin bada
behar da ospatu,
berriz ere gaitezen
bihar gu atxurtu.

*Doinua: Maritxu nora zoaz
Egilea: Xabat Alberdi*



PELE


Berri hori entzun nuenean
azkar egin nion uko
orain edozer esaten dute
mundu osoa beldurtzeko.
Baina nik hortan ez dut sinisten
ez naute engainatuko
gu danok hilda egongo gara
mundua amaitzen denerako.



Kontu hontan sinisten dutenak
izango dira lau babo
gezur horiek gabe egongo
ginen askoz lasaiago.
Nahiko problema ditugu eta
ez ditugu behar gehiago
modu hontako iruzurrekin
nazka-nazka eginda nago.

Orain beldurtuta egongo dira
hainbat heldu eta gazte
Maien txorakeria honekin
zenbat zalantza ta nahaste.
Tontakeriz jositako putzu
batean sartu gaituzte,
teoria hau egia baldin
bada frogak non dituzte?

*Doinua: O baserritxo
Eqilea: Ekaitz Zubimendi*



1.
SARIA

TXANPI

Azaroa

Sei praka pare, lau bat txamarra
prestatzen nago maleta
txerriaren itxulapikoa
apurtuko det kolpeka
denok ilargira joango gera
espaziontzia beteta
mundua behingoz amaitutzeko
hilabete falta da eta

Abendua


Faltan botako ditut hondartza
herria eta etxia
baina ilargira eramango
det gure aitaren kotxia
bederatzitan hartuko degu
danok espaziontzia
Olentzerok ere pentsatu du
gaur gurekin etortzia

Urtarrila

Azkenean alferrik izan da
bidaia hau egitea
ilargiko irratian entzun nun
honi buruzko albistea
dudarik gabe erabaki det
lurrera berriz joatea
espero det gure mundu honek
askoz gehio irautea

Doinua: Pello Joxepe

Egilea: Julia Ron



TXORONPIO
Gabonetan mundua
amaituko ote dan
hala entzun dut gaurko
ETB-1ean
hortaz hitz egiten da
han, hor eta bertain
guk ez degu sinesten
tontakerietan

Gizakia ari da
mundua kutsatzen
eta Amazonako
zuhaitzak botatzen
plastiko eta potez
bazterrak narrasten
amaituko du berak
guztia hondatzen

Ez badegu nahi gauzak
izatea hola
zaindu beharko degu
gure mundu-bola
harremanak hobetuz
sartu (de)zagun gola
hasi zaitez aldatzen,
ez izan mozola!

*Doinua: Astoa ikusi nuen
Egilea: Malet Oiartzabal*

UNTXIA


Munduan amaiera
izan behar dugu.
Maiek esan dutela
behintzat badakigu.
Meteoritoren bat
eroriko zaigu.
Denak hilko garela
ziur ez gaude gu.

Mundua ez amaitzea
pertsonek nahi dute.
Oraindik laster dela
esaten digute.
Denok askoz gehiago
bizi nahi genuke.
Gazteago garela
pentsatu nahi nuke.

Mundua amaitzen bada
zer egingo dugu.
Agian beste Big- Bang bat
gertatuko zaigu.
Edo zulo beltz batek
tragatuko digu.
Zerbait gertatuko da
koiz edo berandu.

*Doinua: Astoa ikusi nuen
Egilea: Unai Matias*





NAGUSIAK

ARDI BELTZA
NEGUAREN EGIA HOTZA

1

Bada denbora gau argi baten
ezagutu zintudala,
maitasunaren beldar goseak
heldu zidan berehala.
Ezaguna da beti zailena
desiratuago dala,
konbentziturik bizi izan nintzan
neuretzako zintudala.

2

Egunak joan gauak etorri
eta zu nire alboan,
oraindik ere gogoan zaitut
etzana nire altzoan,
eten gabeko zirri gozoak
disfrutatuz sutondoan,
buru belarri zugan jarria
begirikan ez geroan.

3

Udarik beroenen ondoren
beti heltzen da negua,
geurea ere ez genun izan
salbuespen gauzatua,
beti izan da gozo guztiak
garraztuzale mundua,
hotz zaparraden ekaitz artean
galdu nuen nik burua.

4

Osotasunez ezin da bizi
biziaz iraganean,
udaberriko lore zara zu
ni zuhaitz udazkenean,
maitea bizi mantent nazazu
mantenduz oroimenean,
hurkatzen nauen amodioa
sokabihurtzen denean.

*Doinua: Badira hiru aste
Egilea: Manex Astigarraga*



AXOLA.
ITXAROPENEZ MALKOAK

1

Ekaindik Endoian gora
Itziartikan barrena
Debako hondartzaraino
heldu da itxaropena
armak isildu ondoren
elkarrizketan orena
orain herriak behar du
gu guztion ekarpena
egoerari emanaz
irtenbiderik onena
biktimak onartzea da
bideratu nahi aurrena
guztiak kontuan hartuz
dolu zintzo ta gardena
gorrotoz puska ez dadin
sufrimenduz lortu dena.

2

Norbaiti entzunagatik
“Dena bukatu da, kitto”
ixilpen sufritzen dena
malkoetan ezin ito
alde batetik joan ziren
Kaittano eta Benito,
Donibane eta Patxi
borrokan galdu betiko
inpartzial izan naiteke
inolaz ere ziniko
guztiak maila berean
nik ez ditut ipiniko
sufritzen dagoen orori
laguntza bai eskainiko
duen samina ulertuz
aurrera jarraitu tinko.




3

Hitz gutxitan azaltzeko
egun dugun panorama
atentatuz norbait galdu
duen familien zama
torturapean aitorta
sinatu dutenen drama
mehatxuen ondorioz
Herri hontatik joana
hogeita sei urtez urrun
presa dagoenaren ama
senda ezin diren gaixoak
bertan mantentzeko trama
geroa bideratu nahi
ahaztu gabe iragana
sufrimendua ez baita
inoiz izan erdibana.

4

Postaltxo bat bidali dit
Puertotik lagun presoak
Belarritik tiratu dit
Beniton familiakoak
denbora irabazi nahi
besarkatuz PPkoak
esanaz “ze min egin duen
politikoen jokoak,
elkarbizitza ta hizkuntza
gaur ez dira oztopoak
euskaldunak nahi nituzke
nire ondorengoak
euskarak egiten gaitu
gu guztiok bertakoak”.
Masailen behera datozen
ITXAROPENEZ malkoak.

*Doinua: Habanera
Egilea: Iñaki Astigarraga*



KILLARRATXUETA
HARRITXINTXARRAK TA POTO HUTS BAT

1

Burutik ezin atera nabil
latza bait da egoera
lantoki asko bizi ezinik
eta jendea kalera
sustrai sendoak ongi errotu
ditu krisiak gainera
minbizi anker baten gisara
zabalduaz gizartera
eta inortxok ez omen daki
non dagoen amaiera

1.
SARIA

2

Hamaika dira hilabeteak
pairatzen ari naizena
erregulazio espedienteak
itotzen baitit barrena
baina badago jende ugari
"eguzkitan astelehena"
desjabetzeak eguneroko
erritorik zitalena
seme alabei laguntzearen
etxea galdu duena

3

Agintariek saldu ziguten
gezurra ta falazia
eta ederki haunditu zuten
batzuek irabazia
Agintariek orain ordea
denontzat kafe gazia
egoera salatzen duenak
hor dauka zai polizia
batzun txontxongilo izatea
al da ba demokrazia

Doinua 1,2,3: Gure aurreko guraso zaharrak

4

Bertso hauek idazten nintzela
altxatu nuen burua
edalontzia erdi beteta
ikusteko momentua
umeen begiz begiratzeko
gaur eguneko mundua
harritxintxarrak ta poto huts bat
gure alabaren hautua
pozik bizitzeko ez baitugu
garrantzitsua dirua

5

Ohartu naiz denbora gutxian
izandako aldaketez;
inguruan nozitutakoez,
eta barne hausnarketez
diruz pobreak izanda ere
txit aberatsak balorez
duintasuna, zintzotasuna
itsasargi izan bitez
nahiz "handimandi" bat baino gehiok
jakingo duen hau nekez

6

Askotan pentsatu izan ohi dut
izan naizela ergela
orain arte agindu dutenak
gure ahotsa zirela
sinistu nahi dut hau aldatzeko
beranduegi ez dela
bizitza beste modu batera
ulertu genezakeela
"Esperantzara kondenatuak"
Garik zioen bezela

*Doinua 4,5,6: Esperantzarik gabeko zenbait
Egilea: Igor Larrañaga*

LASTUR
ARIMAREN ISLA

2.
SARIA

1

Aurpegiaren erdialdean
bi izartxoren distira,
begi deitura dute euskaraz,
barneko leihoaak dira.
Lengoiaia dute benetako
egina euren neurrira;
aldartea ere islatzen dute:
pena, zorion, desira...
Ta inguruaz jabetzen gara
izar horien argira.

2

Arreta jarriz haur txiki baten
begirada gardenean
zer sentimendu ote dituen
jabetzen gara unean;
gose, egarri, poz edo pena...
Zer duen bere barnean,
dir-dir berezi bat eskaniaz
maite duenan aurrean;
komunikatzen garbiagorik
nik ez dakit daitekean.

3

Haurrak eta amak begirada bat
trukatutzean elkarri,
hitzak soberan, berehalaxe
dakite elkarren berri,
bakoitzaren poz, edota penak,
besteak ditu igarri.
Taupadak ere mugi ditzake
begirada batek sarri,
gezurrik ez du lengoaia honek,
hain dugu zirraragarri.

4

Nerabe baten begirada, ai!
zein begirada eztia,
hormonak bor-bor odola bero
eta bihotz amestia,
izan liteke erromantiko,
lizunkeriaz bustia;
jasotzailea bihotza hegan
hunkiturikan uztia,
eta amodio platonikoan
bukatutzea guztia.

5

Bizi-aroa pasatutzean
goizetikan arratsera
begirada ere apalduko da
eguzkiaren antzera.
Bizitza duin bat eramateko
baldin baduzu aukera,
begiek ere patxada isla,
egoeran arabera,
bestela dir-dir gabeko etsipen
bat dakarte azalera.

6

Zahartzaroaren mugara heltzean
nagitu gorputz-adarrak,
itxura galduz, garai bateko,
gorputz lerden ta giharrak;
lilura gutxi, etsipen asko,
non dira lehengo indarrak?
Begi ertzetan, distiran ordez,
ageri dira makarrak,
itzalduz doaz hain distiratsu
izan ziraden izarrak.

Ez du adinak soilik izaten
begiradan eragina,
bizitzan zehar baditugu poz,
zorion, pena, samina,
samurtasuna, garraztasuna,
poztasuna eta ezina.
Eta begiek guztian isla
gardena izateko grina,
horregatikan izaten dira
arimaren isla fina.

*Doinua: Mundu honetan holako gauzak
Egilea: Karlos Larrañaga*



TRIKITIXA

*Auzoko amonari 95. urtebetetzean egindako bisita
SEGI AURRERA!*

1

Panderoa lagun nuelarik
hasi nuen bide hura
sorpresa txiki bat ematea
besterik ez nuen gura
soinua bizkar gainean hartuz
helburua finkatuta
argi geneukan zein izango zen
arrats hartako helmuga
azkar askoan iritsi ginен
bera zegoen lekura.

3.
SARIA

2

Haritz sendo baten babesean
baserri eder zaharra
atea zabaldu bezain pronto
genuen le(he)n irrifarra
zatozte hona zuen zai dago
alabaren hitz bakarra
Zergatik hara sartu orduko
bihotz barneko zirrara?
Nik neukala konturatu nintzen
bera pizteko sugarra.

3

Kaixo amona zer moduz zaude
a zer itxura aparta
hori entzunaz sukalde hartan
ez zen algararik falta.
Hauspoa zabaldu nuen bada
hastear zen lehen kanta
trikitxi hotsek sortu zioten
bai ilusio galanta!
Argi bizi bat piztu zitzaion
isuriz bi malko tanta.

4

Anaiari begiratu nion
nolako esku kolpea
hanka, buru, ondoren ipurdi
panderistaren artea
amona harriturik zegoen
hori sasoia gaztea!
Ahal banuen gurpil-aulkitik
jaikiaz dantzan hastea,
zure alboan jarriko nintzen
astinduz hanka parea.

5

Doinu zaharren xarma zabalduz
segi genuen kantuan
mirestekoa nola hots batek
sortu ziona barruan.
Materiala, materiala
besterik ez da munduan
edertasuna eta dirua
soilik ditugu buruan
ikas dezagun balioz hartzen
daukaguna inguruan

6

Amonagandik ikasia da
ahaztezina askotan
bertso paperak egin nituen
hau kontatzeko asmotan:
Korrika egin ezin baduzu
ibil zaitezke pausotan
pausoak ematea zail bada
egin makulu besotan
baina ez zaitez inolaz ere
gera bide luze hontan!

*Doinua: Itsasoari begira (Lertxundi)
Egilea: Josune Arakistain*